

Merkatuaren segmentazioa

Merkatua aztertzeko gure ikastetxean inkesta bat gauzatu dugu, lortutako emaitzak oso onak izan dira. Bezero posibleak ikasle guztiak eta irakasle guztiak dira, hau da, 15-65 urte bitartekoak, gure proiektua ikasketa munduari bideratuta baitago. Bezeroaren profila ikasketarekin arazoak edo irakasleen kasuan materia azaltzeko zailtasunak dutenak dira.


Inkestatutako %55,4 proiektuak eta azterketak egiteko informazioa aurkitzeko zailtasunak dituzte.

Ondorioz ikasleak beste iturri batzuetatik informazioa lortu beharra dute, galdetegiaren hurrengo galderan adierazten den bezala.

Parte hartu dutenaren %61,4 ezagutzen du ikasketetan laguntzen duten aplikazioak. Honen ondorioz, nitxo hau merkatu berria ez dela ondorioztatzen dugu.


Ezagutzen dituzu ikasketetan laguntzen duten aplikazioak? (adibidez, Classroom, Wuolah, El Rincón del Vago, Lucidchart...)

57 erantzunak



Zure ustez, zer nolako garrantzia dituzte apunteak zure emaitzetan?


57 erantzunak



%54,4-ak garrantzi handia ematen die apunteei eta %8,8-ak garrantzirik ez dio ematen. Ondorioztatu ditzakegu ikasleen nota, kasu askotan apunteen kudeaketa onaren arabera dela.

Zein da ikasterako orduan zuen erronkarik handiena?

57 erantzunak




Erronka akademikoei buruz galdetu dugunean, konturatu gara ez dagoela ia denek pairatzen duten auzirik, baizik eta pertsona bakoitzaren nortasunaren arabera erronka desberdinak daudela.

Arazo zabalduena teoria ulertzea eta ezagutzea da (%33,3). Beste auzi zabaldu batzuk disziplina-falta (%24,6) eta denbora ondo kudeatzea (%15,8) dira. Aipatu diren beste arazoak ariketak egiten jakitea (%10,3), lehentasun akademikoak zeintzuk diren jakitea (%8,6) eta informazioa eta apunteak antolatzea (%7) dira.


%94,7-k erabiliko zuen gure aplikazioan eskegitako bideoak, dossierrak etab. Hau, gure enpresa bezero posibleak izango zituen.

Ikasle eta irakasleek eskeinitako bideo, dossier eta apunteak erabiliko zenituzke?




Inkestaren arabera guk eskeinitako aplikazioa 10 pertsonatik bederatzik deskargatu eta probatuko zutela ikusi ahal dugu, eta honek erakusten duena da gure ideiak harrera beroa izan duela ikasleen artean.


Gure aplikazioa deskargatzeko prest egongo zinatekeen?



Prest egongo zinatekeen ordaintzeko apunte batzuk lortzeko?



Prest egongo zinateke bideo bat ikustera apunteak ikusgai izateko?



Publiko potentzialari dirua ordaintzeko prest egongo liraketen galdetu diegu; %19ak baietz esan du eta datuen arabera gehien ordatzeko prest zegoenak 15€ ordainduko zuen eta gutxien ordainduko zuenak 1€ eskeiniko zigun. Guk egin dugun batzbestekoaren arabera, prest daudenek 5,35€ ordainduko ligukete. Horrez gain, gure publikoak nahiago du informazio hau eskuragarri edukitzeko iragarki bideo bat ikustea. Noctuak bideo hauetatik lortzen duen dirua sortzaileei ordainduko lioke beraien apunteak igotzearen truke.